

# Nire lehen kotxe hura

*Jarraian Euskadi Irratiko pasarte bat entzungo duzu. Solasaldi horretan Onintza Enbeitak eta Arantza Urretabizkaiak haien lehenengo autoarekiko oroitzapenak eta pasadizoak kontatuko dituzte.*



## 1- Nork bere lehen kotxea

*Onintza eta Arantzaren arteko solasaldia entzundakoan erabaki nork esan duen zer.*

|  | Onintza | Arantza |
|--|---------|---------|
| Duela berrogei urte bi zaldiko bat erosi zuen seiehun euroan.  |         |         |
| Alaba gazteena zenez, ahizpengandik jaso zuen autoa, eta haiekin partekatu behar izan zuen.              |         |         |
| Herri txiki batekoa denez lehenengo kotxeak inguruko herrietara joateko askatasuna eman zion.            |         |         |
| Frantziako lagun batek gomendatu zion autoa erostea.   |         |         |
| Lehenengo auto hartan bidaia luzeak egin zituen urruneko herrialdeetara.                                 |         |         |
| Autoaren aurreko kristalean amaren izena jarri zuen.   |         |         |
| Lehenengo auto harekin urrunen Madrilera joan zen.   |         |         |
| Gabriel Aresti eraman zuen bere autoan.  |         |         |
| Istripu bat izan zuen eta, gerora, auto berdina erosi zuen.  |         |         |
| Hiri handian bizi daiteke autorik gabe, baina berea bezalako herri txiki batean ezinbestekoa ikusten du. |         |         |
| Orain autoek DVDA daukate, baina bere garaian kantuan ibiltzen ziren kotxeko bidaietan.                  |         |         |

## 2- Eta... zure lehen kotxea?

*Eta zu, gogoratzen al duzu zure lehen kotxea? Elkartu ikaskideekin eta komentatu, lagun arteko giroan, Onintzak eta Arantzak egin duten bezala, ondorengo galderak.*

- Nola eskuratu zenuen lehenengo auto hura?
- Nolakoa zen? Zer zeukan? Deskribatu.
- Gogoratzen al duzu auto hartan egindako bidaia bereziren bat? Edota auto harekin bizitako pasadizoren bat?
- Zein da auto hartan egin zenuen gauzarik xelebreena?
- Zer gertatu zitzaion auto hari? Edo oraindik kontserbatzen al duzu?



## 1- Nork bere lehen kotxea

|  | Onintza | Arantza |
|--|---------|---------|
| Duela berrogei urte bi zaldiko bat erosi zuen seiehun euroan.  |         | x       |
| Alaba gazteena zenez, ahizpengandik jaso zuen autoa, eta haiekin partekatu behar izan zuen.              | x       |         |
| Herri txiki batekoa denez lehenengo kotxeak inguruko herrietara joateko askatasuna eman zion.            | x       |         |
| Frantziako lagun batek gomendatu zion autoa erostea.   |         | x       |
| Lehenengo auto hartan bidaia luzeak egin zituen urruneko herrialdeetara.                                 |         | x       |
| Autoaren aurreko kristalean amaren izena jarri zuen.   |         | x       |
| Lehenengo auto harekin urrunen Madrilera joan zen.   | x       |         |
| Gabriel Aresti eraman zuen bere autoan.  |         | x       |
| Istripu bat izan zuen eta, gerora, auto berdina erosi zuen.  | x       |         |
| Hiri handian bizi daiteke autorik gabe, baina berea bezalako herri txiki batean ezinbestekoa ikusten du. | x       |         |
| Orain autoek DVDA daukate, baina bere garaian kantuan ibiltzen ziren kotxeko bidaietan.                  | x       |         |

